

**Erakundea:** Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea.

**Saila:** Euskera.

**Espediente mota:** Administrazio-kontratazioa.

**Kontratu mota:** Zerbitzuetakoa.

**Zerbitzuaren objektua:** 2016-2017ko Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Euskararen erabileraren Normalizaziorako V. Plan Estrategikoaren garapena

**Esleipen-jardunbidea:** Publizitaterik gabeko negoziatua

**Espediente Zkia:** 2016/02.

**Agiri mota:** Baldintza teknikoen plegua

## (2016-2017) URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN EUSKARAREN ERABILERA PLAN ESTRATEGIKOAREN GARAPENERAKO ZERBITZUA EMATEKO ETA, GERO, BERONEN EKINTZAK GARATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

---

### 1. HELBURUA

Zerbitzu kontratu honen funtsa Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskararen Erabilera Plan Estrategikoa (2016-2017) garatzea da, Euskararen Erabilera Plana (2013) dokumentuko plan estrategikoan jasota dauden ekintza eta proposamenak oinarritzat hartuz, bertan jasotako ekintzak eta proposamenak 2016 eta 2017an garatu behar diren heinean, edo aurreko urteetan hasitako ekintzekin jarraitzeko.

### 2. EGINKIZUNAK

2.1. Honekin batera, eranskin bezala eta plegu honen zati legez, jasotzen den Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskararen Erabilera Plan Estrategikoan agertzen diren betekizunak eta ekintzak egin eta burutzea, 2016 eta 2017 urteei dagokienez.

Hain zuzen ere, hauek dira esleitutako kontratuaren betekizunak, planari dagokionez:

2.1.1.- Hizkuntza gaitasuna:

Langileek lana euskaraz egin ahal izateko trebakuntza eman eta hizkuntza aholkularitza eta idatziak zuzentzeko laguntza eskaini.

2.1.2.- Ahozko komunikazioa:

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, ahozko komunikazioetarako finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera eman.

Hizkuntza-irizpideak bete daitezen beharrezkoak diren bitartekoak jarri (hizkuntza-aholkularitza, harrera protokoloa...)

2.1.3.- Idatzizko komunikazioa:

Hizkuntza-irizpideak bete daitezen beharrezkoak dira bitartekoak jarri (hizkuntza-aholkularitza, testuen zuzenketa eta egokitzapen zerbitzua eskaini).

Eredu ele bien lanketa bermatu (kanpora begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu, euskaratu (beharrezkoa denean), moldatu eta langileen esku jarri euskarri desberdinetan.

Euskaraz lan egin nahi dutenek eta euskaraz lan egin behar dutenek bere lana euskaraz egin ahal izateko baliabideak eskaini (hiztegiak, zuzenketak, itzulpenak, ereduak, zalantzak argitzeko bideak etab.)

2.1.4.- Langileen prestakuntza orokorra:

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, Mankomunitateak ezarri duen irizpideak ezagutzera emateko eta euskarazko ikastaroen eskaintza sustatu.

2.1.5.- Tresna eta aplikazioa informatikoak:

Hizkuntza-irizpideak bete daitezen beharrezkoak diren bitartekoak jarri (hizkuntza- aholkularitza, testuen zuzenketa eta egokitzapen zerbitzua).

2.1.6.- Hizkuntza-paisaia:

Aztertu eta gabeziak antzeman ondoren, zuzendu, egokitu edo euskaratu.

2.1.7.- Kontratazio administratiboak:

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, kontratazio alorrean finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko.

Kontratazio alorreko dokumentazio guztia ele bitan egotea bermatu (hizkuntza-kalitate egokiko idazkiak prestatu, langileei ezagutzera eman, etab.).

2.2. *Irati* aplikazio informatikoaren bidezko kudeaketa egitea.

2.3. Urte bakoitzeko iragan urteko balorazio memoria egitea.

2.4. Uribe Kostako Mankomunitateko Erabilera Planaren jarraipen batzordea koordinatu eta idazkari lanak egin.

2.5. Harremanak mankomunitatearekin eta bestelako herri administrazioekin harremanetan laguntzea:

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekiko harremanak: Erabilera Planaren barruan garatzen diren ekintzak Euskara Zerbitzuarekin koordinatuko dira; hasierako proposamenak euskara zerbitzuari aurkeztuko zaizkio eta ekintzok burutu osteko memoria ere bai.

Honetarako, adjudikaziodunaren ordezkariak, edo aukeratutako ordezkaria, euskara zerbitzuak deitzen dituen batzar rotara joan beharko dira Mankomunitatearen egoitzan edota Mankomunitatearen parte diren udaletxetan.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekiko harremanak: eskatu beharreko aholkularitza eta laguntza eskaria prestatzea esleipendunari dagokio HPSri Erabilera Plana aurrera eramateko.

Bizkaiko Foru Aldundiko "Alkarbide" euskara zerbitzuen bilgunea: Aholkuak eta bestelako laguntza eskaria prestatzea esleipendunari dagokio Alkarbideri mankomunitateak aurreikusitako egitasmoak burutzeari begira.

### **3. ESLEIPENDUNAREN PARTE HARTZEA**

#### **3.1 Funtzioak**

Erabilera Planeko ekintzen garapena, beharrezkoa den koordinazioa eta ebaluazioa egitea, 2. Atalean jasotzen diren funtzioak eta betekizunak kontuan hartuta.

#### **3.2 Tokia**

Erabilera planeko trebatze saioak burutu behar direnean Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko egoitza erabiliko da. Bestelako lanak egiteko esleipendunak bere egoitza(k) erabiliko du.

#### **3.3 Dedikazioa**

Ordutegia, zerbitzu betebeharren arabera, malgua izango da.

#### **3.4 Programak**

Lizitatzailak egingo diren lanei buruzko proiektua aurkeztu behar du: metodologia, egutegia eta abar.

#### **3.5 Titulazioa**

Esleipendunak, gorago aipatu direnak garatze aldera, 4. HE edo baliokideren bat duen pertsonal lizentziaduna edo diplomaduna izan behar du plantilan.

Esleipendunak, zerbitzua burutuko duten pertsonen izenak eta curriculum profesionala jarri behar du bere eskaintzan.

### **4. PREZIOA**

Uribe Kostako erabilera Plana martxan jarriko duen enpresak, 2016 eta 2017an hogeita lau faktura aurkeztuko dituzte, faktura bat egin beharko du hilean esleipen-prezioa 24tan zatituz, eta urte bakoitzean 7.438,02 €ko aurrekontua izango dute (BEZ kanpo).

## **5. IRAUPENA**

Kontratuak bi urteko iraupena izango du eta epea kontratua izenpetu osteko egunetik hasiko da.

## **6. BESTELAKO AGIRIAK**

Honekin batera, plegu honen eranskin bezala, agertzen diren agiri hauek kontuan hartu beharko dira eskaintza prestatzeko eta, esleipenduna izatekotan, kontratua garatzeko eta betekizunak betetzeko:

- URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK FINKATZEKO PROPOSAMENA (2013KOA)
- URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN EUSKAKAREN ERABILERA PLANA GARATZEKO JARRAIPEN BATZORDEA ERATZEKO PROPOSAMENA (2013KOA)
- URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN EUSKAKAREN ERABILERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA (2013KOA)

Sopelan, 2016ko otsailaren 12an

DILIGENTZIA: Plegu hau 2016 otsailaren 18an ospatutako Mankomunitateko Gobernu Batzordean onartua izan dela ziurtatzeko.